

Jaialdia Literaktum

20  25





Javier Cercas © Iñaki Rubio

Jaialdia LITERAKTUM

Azaroaren 10etik 23ra ospatu zen **Literaktum** literatura-jaialdia, hainbat erakunderekin lankidetzan. 8.200 lagun inguru joan ziren hainbat espaziotan haur zein heldu literaturzaleentzako antolatutako 53 jardueretara.

Niaren oihartzunak: bakardadearen eta nortasuna aro globalean izan zen azkeneko edizioaren izenburua, galdera pertsonal eta unibertsal bat planteatuz: ¿nola definitzen dugu geure burua, bakardadea gero eta ohikoagoa den mundu global batean? Gai horren inguruan aritu ziren **Arantxa Urretabizkaia, Julen Apella, Belén Gopegui, Eider Rodriguez, Carys Davies, Samantha Schweblin, Laura Chivite, Ignacio Martínez de Pisón** eta **Lourdes Oñederra**.




Gai nagusiaz haratago, **Juan Manuel de Prada**, **Fernando Navarro**, **Juan José Millás**, **Ignacio Peyró**, **Javier Sierra**, **Javier Cercas**, **Harkaitz Cano** eta **Agatha Loth-Ignaciouk**-ek beraien lanak aurkeztu zituzten, eta **Espido Freirek Jane Austeni** buruz egindako bere hirugarren saiakeraren inguruan hitz egin zuen, britainiar idazlearen jaiotzaren 250. urteurrena zela eta.

Ekitaldi horien guztien artean, bereziki jendetsuak izan ziren **Juan Manuel de Prada**, **Juan José Millás** eta **Javier Cercas** idazleekin egindako topaketak, baita Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan **Ángel Marco** aktorearekin, eta **Iban Zaldúa** idazlearekin eta **Ibil Bedi** taldearekin eskainitako emanaldiak, eta **Iñaki Salvador** eta **Miren Gabirondoren** kontzertu eszenikoa ere.



Juan José Millás © Iñaki Rubio

Jaialdiaren egitaraua osatzeko, beste jarduera batzuk ere izan ziren: **Kutxa Fundazioa Irun Literatura Sariak**, non euskarazko eta gaztelaniazko eleberrien eta poesiaren modalitateetan eman zituzten sariak; **La doble vida de Virginia Woolf** antzezlanak; **Miren Amurizaren** bertso-saioa, **Pleibak** nobelan oinarritutakoa; **El Principito** irrati-antzerkia; errezitaldiak Intxaurren Kultur Etxean eta Loiola Kultur Etxean; ipuin kontalarien XI. Maratoia; **Virginia Woolfen La señora Dalloway** nobelan oinarritutako literaturari buruzko solasaldia eta afaria; eta **Joxan Oizen Amazurtza** nobelari buruzko paseoa eta solasaldia.



Antonio Machado 150, Ángel Marco © Iñaki Rubio

Bost erakusketa ere antolatu ziren **Literaktum** jaialdiaren barruan: **Isola**, **Nerea Urrestarazurena**, Ernest Lluch Kultur Etxean; **De las emociones a los dibujos, 72kilos** ilustratzailearena, **Homenaje a Ignacia Zabalo. Nor-Nai**, biak Aiete Kultur Etxean; eta **Liburuaren arbola** eta **Bazen behin**, Okendo Kultur Etxean.

Halaber, parte-hartze handia izan zen **Literaktum Txikian**, ipuin kontalariekin, antzezlanekin, Haurren Nazioarteko Egunaren 9. Jaiarekin, ilustrazio-tailerrekin eta **Gregorio Murok** sortutako **Iker eta Ixone** pertsonaien abenturei buruzko Ilustrazio Lehiaketarekin. 222 marrazki aurkeztu ziren, guztira, lehiaketaren bosgarren edizio honetan.

Donostia Kulturak antolatuta, **Literaktum** jaialdiaren indarguneetako bat kolaboratzaile-sarea izan zen. Jaialdian kolaboratzaile izan ziren **Kutxa Fundazioa**, **Donostia Gazteria**, Donostiako Udaleko Kultura Aniztasunaren eta Giza Eskubideen Bulegoa, **Gipuzkoa Liburudendak** elkarte, **Narodowa** liburutegia, **Euskal Irudigileak** elkarte, **Euskararen Etxea**, **Mestiza elkarte artistiko sozio-kulturala** eta **Metro Bilbao**, besteak beste.

Joaterik izan ez zutenek edo topaketak berriro bizi nahi zituztenek, **Literaktum** jaialdiaren webgunean, **DK ON!** atarian, **DK Irratian** eta podcast-plataforma nagusietan.



Isola erakusketa, Nerea Urrestarazu © Iñaki Rubio



Haurren Nazioarteko Egunaren 9. Jaiak © Iñaki Rubio



Bazen Behin erakusketa